



Esp.kodea: 2021PRPT0002

Gaia: 2022KO PLANTILLA ETA
LANPOSTUEN ZERRENDA
Hasiera eguna: 2021/11/19

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2021eko abenduaren 14an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

“2022KO PLANTILLA ORGANIKOA (2021PRPT0002).

Udal Plenoak, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 9 abstentziorekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE-Podemos/Ezker Anitza-IU/Equo Berdeak), Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.1. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.1 artikulua xedatzen dute Toki Korporazioari dagokiola, aurrekontuaren bidez, Plantilla Organikoa onartzea urtero, funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin-behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak bilduko dituen.

Hori dela eta, 7/1985 Legearen 90 artikuluan jasotako arrazionalitatea, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera agiri hori prestatu eta gero, Barne Antolaketaren Batzordeak, akordio hau hartzeko proposatzen dio udalbatzarrari:

Lehena: 2022eko urtealdirako Plantilla Organikoa onartzea; funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin-behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak hartzen dituen.

Bigarrena: GAOn argitaratzea onartutako agiria, aurrekontuen laburpenarekin batera, eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan 127 artikuluan jasotakoa betez, haren ale bat bidaltzea baita ere dagokion administrazioari.”

Kodea	H21/01114	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/abe./29	CUDO	000.0055.AAAAATX.M.eNM8
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANATXM.eNM8		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021PRPT0002

Gaia: 2022KO PLANTILLA ETA
LANPOSTUEN ZERRENDA
Hasiera eguna: 2021/11/19

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2021eko abenduaren 29an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H21/01114	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2021/abe./29	CUDO	000.0055.AAAANATX.M.eNM8
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANATXM.eNM8		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

